

## MIKROTEKA ERABILTEKO ARAUA

2003-05-05 16. Gobernu batzordeko aktan onartuta

- Mikroteka erabilteko bazkidea izan behar da
- Mikrotekan liburutegiko lanak bakarrik kontsultatu ahal izango dira. Norberaren CD/DVDrik ezin izango da kontsultatu.
- Lanen zati batzuen kopiak paper, diskete edo CD-R euskarritan egin ahal izango dira. Horretarako liburutegiak emango duen materiala erabiliko da eta araututako tasak kobratuko dira.
- Internet kontsultak egiteko erabiliko da. Chat edo jokuak erabiltzea debekatuta dago.
- Liburutegiko pertsonala ohartzen bada interneten erabilera okerra egiten dela (chat, jokuak, webgune pornografikoak e.a) terminala itzaldu egingo dio, berdin izanda erabiltzailearen adina. Jokabide hau errepikatzen bada zerbitzu hau erabiltzea galaraziko zaio.
- Internet 12 urtetik gora erabili izango da
- 12 urtetik 17 urterarte internet zerbitzua erabiltzeko gurasoek sinatutako baimena beharrezkoa izango dute. Sinatu eta gero hilabete baino lehenago gurasoekin kontaktatuko dugu baimena sinatu dutela konfirmatzeko.
- Mikrotekaren erabilera doan izango da.
- Lau ordenagailuetatik bat, uneko kontsultak egiteko erabiliko da. Beste hiruak erabiltzeko, kontsultaren erreserba egiten dutenek lehentasuna izango dute.
- Egunean, gehienez ordu erdi erabili izango da. Ordua eskatuta duena berandu badator, hamar minutu pasatzen direnean erreserba anulatu egingo zaio eta beste pertsona bateri 20 minutuz erabiltzeko aukera emango zaio.
- Kontsultako ordu erdia ordenagailuaren erlojuak markatzen duena izango da, eta ez norberaren erlojuarena.
- Hiru ordenagailutan kontsulta erreserbatzen dutenek lehentasuna izango dute besteen aurrean.
- Ordu erdia egin ostean hurrengo txandan inork ez badu ordenagailua erabiltzen kontsulta luzatzeko baimena eman daiteke.

- Zerbitzuaren eskaria handia danean ( ordu zehatzetan edo egun zehatzetan) ahalik eta erabiltzaile gehien erabiliko dutela bermatuko da. Horretarako, egoerak hori eskatuko balu, astean kontsulta bakarra egiteko agindua ezarri ahal izango da.

Bermeon, 2003ko apirilaren 28an